

## Immolatu zen lehen emakumea

BA al dakizue zer gertatzen ari den Palestinan? Guk Palestinako gatazkarekin lotura izan zuen emakume bati buruz hitz egingo dizuegu.

Gu Kseniia eta June gara, Leizaran ikastetxeko DBH-3ko ikasleak.

Gure helburua Wafa Idrisi gertatu zitzaiona kontatzea da. Emakume palestinar honek zer egin zuen eta zergatik egin zuen azalduko dugu.

Gaur egun, Palestinako gatazka bizirik dagoenez, bideo honen bidez, Palestinako historian, emakume honek izan zuen garrantziaz hitz egin nahi dugu.

Wafa Idris 1975eko otsailaren 11n jaio zen, "Amari", Palestinako errefuxiatu kanpamentu batean. 1999tik emakume honek Palestinako Ilargi Erdi Gorrian egiten zuen lan, erizain moduan.

Iturri eta albiste desberdinetan bila ibili ondoren, informazio kontrajarria bilatu dugunez, azkenean Wikipediara jotzea erabaki dugu.

Bildu dugun informazioaren arabera, badakigu 16 urterekin, bere lehengusuarekin ezkondu zutela eta 23 urterekin haurdun geratu zela. Haurdunaldiaren zazpigarren hilabetean, haurra galdu zuen, eta horrek seme-alabarik ezin izatea eragin zion. Senarra handik bi astera, beste emakume batekin ezkondu zen, eta harekin bi seme-alaba izan zituen.

Wafa Idrisrek senar ohiak lehenengo umea izan zuela jakin zuenean, berarekin itzultzen saiatu zen, baina senar ohiak hori ezin zuela egin esan zion, garai hartan, dibortziateak izena zikintzen zuelako. Horren ondorioz, depresioan erori zen.

Horraino bere bizitzako kontuak.

Hemendik aurrera bere militantzia eta bere herriarekin, Palestinarekin, hartu zuen konpromisoaz hitz egingo dugu.

2002ko urtarrilaren 27an, goiz jaiki zen, goizeko zortziak aldera, eta lanera joan zen, ingurukoek esaten zutenez, pozik atera zen.

Egun hartan, Wafak hamar kiloko bonba zeraman motxilan, Jerusalemgo erdialdera bidean eta inor ezer susmatu gabe iritsi zen hara.

“Jaffa” kaleko zapata-denda baten aurrean gelditu zen, plaza handi eta nagusi batean. Han, motxilan zeraman bonba aktibatu eta lehertarazi egin zuen.

Leherketak bera eta 81 urteko Israeldar bat hil zituen. Horretaz gain, ehun pertsona zaurituta atera ziren.

Wafaren identitatea ez zen baieztatu erasoaren hiru egun pasa eta gero arte.

Wafak 27 urte zituen lehergailua lehertarazi zuenean.

Wafak oso gaztetatik, 12 urte zituenetik, emakumeen batzordean parte hatzen zuen. Oso argi zeukan martiri moduan hil nahi zuela, hau da, bere herriaren alde egiteko, bere herriaren alde hil edo sufritzeko prest zegoen bere herriaren askatasuna defendatzearen.

Batzuentzat horrela izan zen, beste batzuentzat, ordea, terrorista moduan hil zen.

Bere izena eta bere istorioa ezaguna egiten hasi zen mundu osoan, abestietan ere aipatu da; Euskal Herrian, esate baterako, Tapia eta Leturiak kantu bat egin zioten 2002an, omenaldi moduan.

2025eko irailean, abestia gaurkotzeko, Eñaut Elorrietak eta hainbat abeslarik Tapia eta Leturiaren kantua oinarri hartuta, bertsio berri bat egin dute.

Honaino Wafa Idrisen istorioa.

Amaitzeko, batetik, zaila izan da gai honi buruz informazioa bilatzea, eta informazioa bilatu dugunean kontraesankorra zen. Hortik aparte, guretzat hori egitea pentsaezina da, guri hori ulertzea kostatzen zaigu.

Baina haien larrian egongo bagina, ez dakigu zer egingo genukeen.

Ezin dugu imajinatu berak zer sentitzen zuen, zenbat sufritu zuen.